

**ADMINISTRAZIO BALDINTZEN ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, EAE-N ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK GARATZEKO MODUARI BURUZKO AZTERLAN BAT KONTRATATZEKO**

1.- KONTRATUAREN HELBURUA:

Agiri honetako kontratuaren helburua da EAE-N ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GARATZEKO MODUARI BURUZKO azterlan bat egiteko beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatzea. Azterlan horrek oinarri gisa balioko dio Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari, bere ekimenez arlo horren gaineko txosten bat egin dezan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legeak 3.d) artikuluan erakunde horri onartzen dion funtzioaren barruan.

Egin beharreko lanaren baldintza teknikoak, helburuak, edukiak eta metodologia agiri honetako 15. puntuan azaltzen dira.

2.- LIZITAZIO OINARRIA EDO MOTA

Agiri honetan bildutako lan guztietarako, 100.000 euroko aurrekontua izango da gehienez, BEZik gabe (% 16koa).

Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz ematen den hori izango da, eta BEZa aparteko partida batean sartuko da.

Kontratuaren prezioaren barruan sartutzat emango dira aplika daitezkeen era guztietako zergak, tasak eta kanonak, bai eta kontratistak agiri honetan jasotako betebeharren ondorioz izaten dituen gastu guztiak ere.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetako kontratua Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak kontratatzekeo dituen barne arauak eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen (aurrerantzean SPKL) araudi aplikagarriak zuzenduko dute.

Dena dela, kontratu pribatutzat joko da, eta, beraz, haren ondorioak eta amaitzeko modua zuzenbide pribatuaren arabera arautuko dira.

4.- KONTRATATZEKO AHALMENA

Honako hauek dute kontratatzekeo ahalmena: pertsona fisiko eta juridikoak, espainiarrak edo atzerritarrak, jarduteko erabateko gaitasuna dutenak eta agiri honetan ezarritakoaren arabera kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen dutenak, eta kontratuaren helburuari dagokion gaikuntza profesionala dutenak.

Horrez gain, ezin edukiko dute SPKLko 49. artikuluan adierazitako debekuetako bat bera ere.

4.1 Ekonomia eta finantza kaudimena:

Bide hauetako bat edo hainbat baliatuta egiaztatu ahalko da:

- ❖ Finantza erakundeen txostena, edo, hala badagokio, lizitatuzaileak arrisku profesionali aurre egiteko kalte-ordain aseguru bat baduela ziurtatzen duen agiria.
- ❖ Enpresaburuak izanez gero, urteko kontuak aurkeztu beharko dira.

- ❖ Enpresak azken hiru urteetan egindako lanen guztizko negozio kopuruari buruzko aitortpena.

4.2 Kaudimen tekniko edo profesionala

Kaudimen tekniko edo profesionala lizitatzaillearen ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna kontuan hartuta baloratuko da. Kaudimen hori honela egiaztatuko da:

- ❖ Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbat kostatu diren, noiz egin diren eta zein entitatek kontratatu dituen adierazita.
- ❖ Enpresaburuaren eta zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta profesionalak, eta, batez ere, kontratua betetzeaz arduratuko diren langileenak. Horrez gain, kontratatzeke baldintzen agiri honetako hurrengo atalean eskatzen den informazio gehigarria ere eman beharko da. Lizitazio honetan parte hartzeko kaudimen tekniko edo profesionala badela egiaztatzeko, gutxienez hiru pertsona hauek inplikatu beharko dira kontratua egiteko:
 - Proiektuaren zuzendari bat, gutxienez 10 urteko esperientzia profesionala duena.
 - Senior aholkulari bat, gutxienez 7 urteko esperientzia profesionala duena.
 - Junior aholkulari bat, gutxienez 3 urteko esperientzia profesionala duena.

5.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Lizitazio hau prozedura ireki bidez egingo da, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen kontratatzeke barne arauetan aurreikusitakoarekin bat. Arau horiek erakunde horren webgunean daude argitaratuta, kontratatzailearen profileen.

6.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Eskaintzak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen egoitzan aurkeztu beharko dira (Kale Nagusia, 81, 7.a, 48011 Bilbo), 2009ko azaroaren 10ko 14:00 baino lehen.

7.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA

Eskaintzak bi gutun-azaletan aurkeztuko dira: A eta B izenekoetan. Horietako bakoitzean, barruan zer duten (ondoren adieraziko den bezala) eta lizitatzaillearen izena zein den adieraziko da.

A gutun-azala: Honako hau idatziko da: "**Energia berriztagarriei buruzko azterlanaren lizitaziorako dokumentazio orokorra**". Gutun-azal horren barruan, dokumentu hauek sartuko dira:

- 1.- Lizitatzaillearen nortasunaren egiaztageria:
 - a. Lizitatzaillearen nortasun agiria (notarioak egiaztatutako fotokopia), pertsona fisikoen edo banako enpresaburuaren kasuan.
 - b. Enpresaburuaren pertsona juridikoa bada, Merkatu Sozietatearen eratze eskritura, Merkatu Erregistroan behar bezala inskribatua, edo eratze agiriak, estatutuak edo fundatze egintza, dagokion erregistro ofizialean inskribatutako jarduerari buruzko arauak azaltzen dituztenak, eta legezko ordezkariaren nortasun agiria.
 - c. Ahalmen eskrituraren kopia, beste norbaiten ordezkari gisa jarduten bada, bai eta haren nortasun agiriaren fotokopia egiaztatua edo notario lekukotza ere. Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, ahalmen horrek Merkatu Erregistroan egon beharko du inskribatua.

2.- Hala badagokio, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta lizitazioaren unean ordainduta edukitzea legez exiji daitekeen urtealdi / aldiko ordainagiria. Zerga ordaintzera behartuta ez badago, halako betebeharrak ez duela dioen aitortpen erantzulea.

Hala badagokio, Jardueraren Alta/Hasieraren Zentsu Aitorpena (Zerga Agentzia).

Estatuko, erkidegoko eta udalerriko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kuotak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria edo aitortpena. Esleipendun izateko proposatua izanez gero, lizitatuzaileak konpromisoa hartuko du baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko, SPKLko 135.4. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Lizitatuzailearen aitortpen erantzulea SPKLko 49. artikuluan zerrendatutako kontratatze debekuetako bakar bat ere ez duela eta indarreko legerian aurreikusitako debekurik ere ez duela dioena.

Kontratatzen fax zenbakia edo helbide elektronikoa, ebazpenen eta kontratazio espedientearekin zerikusia duten gainerako egintzen jakinarazpenak jasotzeko.

Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko duela egiaztatzen duten dokumentuak, agiri honetako 4.1 eta 4.2 puntuetan ezarritakoaren arabera.

Kontratatzen Eusko Jaurlaritzaren Kontratatzen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria aurkezten badu, ez du aurkeztu beharko 1. idatz-zatian adierazitako nortasunari eta ordezkari buruzko dokumenturik, baldin eta ordezkari aurkeztutako dokumentazioan agertzen den berbera bada.

Eusko Jaurlaritzaren Kontratatzen Erregistroko ziurtagiriarekin batera, lizitatuzailearen aitortpen erantzule bat aurkeztu beharko da, hor agertzen diren inguruabarrak ez direla aldatu dioena.

B gutun-azala: Honako hau idatziko da: **“Energia berriztagarri buruzko azterlanaren lizitazioarako eskaintza ekonomikoa eta teknikoa”**: Gutun-azal horren barruan, dokumentu hauek sartuko dira:

1.- Prezioa: Sinatua eta datatua egon beharko du, eta I. eranskinean agertzen den ereduari doitu beharko zaio.

Zenbakietan adierazitako zenbatekoa eta letretan adierazitakoa bat ez badatoz, azken hori nagusituko da.

2.- Eskaintza teknikoa.

Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko eskaintza teknikoa honela osatuko da:

❖ Azterlanaren azalpen memoria. Eduki hau izan beharko du gutxienez:

- ✓ Azterlanaren edukien eta erabiliko diren tresna metodologikoen eskema eta proposamena.
- ✓ Lanak nola egingo diren azaltzeko deskribapen osatu bat, faseak eta horien iraupena adierazita. Oso garrantzitsua izango da kapitulu bakoitzaren amaierari eta entregari buruzko egutegi bat aurkezteko, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak lanak ondo jarraitu eta gainbegiratzeko modua izan dezan. Memorian dokumentuen gaineko eranskin bat ere sartuko da, eta kapitulu bakoitzean datuen eta dokumentuen zer iturri, kontsultarako zer material eta zer bibliografia erabiltzea espero den zehaztuko da hor.

- ✓ Lizitzaileak kontratuaren helburua nola bete asmo duen modu egoki eta osatuan azaltzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio.
- ❖ Enpresaren edo enpresen (baterako eskaintzen kasuan) memoria, enpresak azterlana egiteko zer esperientzia eta gaitasun duen zehazten duena. Horrez gain, enpresak egindako antzeko azterlanak eta lanak egin dituela egiaztatzen duten erreferentziak emango dira.
- ❖ Azterlanean parte hartuko duten aholkularien identifikazioa, haien funtzioak eta arduraldia zehaztuta, bai eta bakoitzaren curriculum vitae ere, azterlanean izendatzen zaizkien lanak egiteko gaitasun eta egokitasun profesionala dutela egiaztatzeko. Azterlanari eta kapitulari zenbat ordu eskainiko zaizkion eta taldeko kide bakoitzak zer funtzio izango dituen zehazten duen plana.

Laneko zati espezifikoaren bat azpikontratatzea aurreikusiz gero, berariaz adieraziko da hori, eta atal honetan exijitzen den informazioa gehituko da azpikontratatu den enpresaren eta aholkulari taldearen gainean ere.

8.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu hau emateko edo eman gabe uzteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

IRIZPIDEAK	BALORATU BEHARREKO ALDERDIAK	HAZTAPENA
Eskaintzailea(k) eta giza taldea	Eskaintzailea(k). Azterlanaren gaia ezagutzea. Kontuan hartuko dira gaiari buruzko lanetan emandako erreferentziak.	% 15
	Giza taldea: Azterlana egiteko aholkulari taldearen gaitasuna, trebakuntza eta egokitasuna. Aholkulari taldearen arduraldia, kapitulu bakoitzari eskainiko zaion denborari buruzko plan xehatu baten bidez baloratua.	% 20
Alderdi teknikoak	Azterlanaren eskemaren eta edukien proposamenaren kalitatea eta balio teknikoa	% 25
	Lanak egiteko planaren kalitatea eta jarritako helburuen eta arauen betetze maila.	% 15
Proposamen teknikoaren aurkezpena	Proposamenari eta hobetzeko iradokizunei balio erantsia ematen dioten elementuak.	% 10
Prezioa	Prezioa	% 15
GUZTIRA		% 100

Gutxienez % 65eko portzentaje haztatuarekin kalifikatu diren proposamenak hartuko dira kontuan esleipenerako.

9.- KONTRATUA BETETZEKO EPEA

Azterlana egiteko epea sei hilabetekoa izango da, kontratu hau izenpetzen denetik aurrera, eta kapitulu bakoitza entregatzeko, berriz, egutegi bat izango da, modu honetara antolatua:

- ✓ Lehenengo entrega azterlanaren lehen kapitulua emateko izango da, eta kontratua sinatzen denetik 45 egun igaro baino lehen izango da hori.
- ✓ Bigarren entrega 2010eko urtarrilaren 31 baino lehen izango da, eta azterlaneko 2. kapitulua emango da.
- ✓ Hirugarren entrega 2010eko martxoaren 15a baino lehen izango da, eta azterlaneko 3. eta 4. kapituluak emango dira.
- ✓ Laugarren entrega 2010eko apirilaren 30a baino lehen izango da, eta 5. kapitulua emango da.
- ✓ Azken txostena kontratua sinatzen denetik sei hilabete igaro baino lehen entregatuko da. Epeak luza daitezke, baldin eta bi aldeek kontratuaren helburua modu eraginkorragoan betetzeko beharrezkoa dela ikusten badute.

10.- PREZIOA ORDAINTZEKO ERA ETA BERANDUTZEAGATIKO PENALIZAZIOAK

Prezioa modu honetara ordainduko da:

- Guztizko prezioaren % 25, lehenengo entrega aurkeztu eta onartzean.
- Guztizko prezioaren beste % 25, bigarren eta hirugarren entregak aurkeztu eta onartzean, hau da, lanaren lehen eta bigarren faseak amaitutakoan.
- Guztizko prezioaren beste % 25, laugarren entrega aurkeztu eta onartzean. Horrekin, azterlanaren hirugarren fasea amaituko da.
- Guztizko prezioaren azken % 25a, azterlana aurkeztean eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak azken onespena ematean.

Txosten partzial bakoitzari edo azken txostenari onespena eman aurretik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak oharrak bidali ahalko ditu, eta, zuzenketa edota ñabarduraren bat egin behar izanez gero, horretarako epe bat emango dio enpresa esleipendunari.

Txosten partzialak edota azken txostena aurkezteko epea betetzen ez bada ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beretzat gordetzen du dagokion txostenaren balorazio ekonomikoari atzeratu den egutegiko aste bakoitzeko % 4ko penalizazioa aplikatzeko eskubidea. Penalizazio hori ez da aplikatuko atzerapena ezinbestez gertatu bada.

11.- AZPIKONTRATAZIOA

Non eta azpikontratatzeko aukera ez den aurreikusi administrazio baldintzen eta preskripzio teknikoan agiri honi erantzuteko aurkezten den eskaintzan eta azpikontratatu nahi den enpresari buruz ez den aurkeztu lizitatuarentzat eskatu den dokumentazio berbera, ezin hitzartuko da hirugarren batekin kontratu honen helburua osorik edo zati batean egiteko kontraturik.

12.- LANAREN JABETZA INTELEKTUALA ETA DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresak ezin erabiliko ditu lanean lortzen dituen datuak eta dokumentuak, eta ezin egingo du inolako erreproduziorik eta ustiapenik baldintza teknikoek agiri honetan ezarritakoa alde batera utzita, non eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardeak ez duen horretarako baimena idatziz ematen, azterlanaren jabetza intelektual eskusiboa harena denez gero.

Egindako lan guztia, kontratuaren xedea alegia, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardearen jabetzan geldituko da eskusiboki. Hala, edozein aldaketa egin ahalko du hark edukietan, eta egoki irizten dion erabilera eman.

13.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardeak eta kontratistak kontratu bat formalizatu beharko dute, dokumentu pribatuan, 10 egun balioduneko epean, esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, esleipendunak administrazio baldintzen eta baldintza tekniko berezien agiria sinatu beharko du, non eta ez dion sinatzeari uko egiten, dokumentuan jadanik adierazi duelako ezagutzen dituela baldintzak eta oso-osorik onartzen dituela.

14.- JURISDIKZIO ESKUDUNA Agiri honetan aurreikusitakoaren arabera eskaintzaren bat aurkezteak arlo zibileko Bilboko epaitegi eta auzitegien mende egotea dakar berekin, bai eta norberaren beste edozein foruri uko egitea ere, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako.

15.- PRESKRIPZIO TEKNIKOAK

15.1 Azterlanaren justifikazioa, analisi esparrua eta helburua

Klima aldaketa eta atmosferara negutegi efektuko gas gutxiago isurtzeko beharra, erregai fosilen mendekotasun izugarria, gaur egungo eta etorkizuneko energia hornikuntzaren gaineko zalantzak eta horrek energiaren prezioetan eragiten duen igoera kezka politiko handiko kontu bihurtu dira azken urteotan. Horiek hala, gure inguruko eta Europar Batasuneko herrialdeetako klima eta energia politiken helburuak ingurumen iraunkorra lortzera, energia hornikuntza bermatzera eta ekonomia lehiakorra erdiestera bideratu dira. Testuinguru horretan, energia berriztagarriek funtsezko eginkizuna dute. Izan ere, energia horiek ahalmena dute negutegi efektuko gasen igorpena murrizteko, energia iturri autoktono eta deszentralizatuak ustiatzeko eta hala kanpoaldearekiko mendekotasuna murrizteko, eta teknologia aurreratuko industriak sustatzeko.

Hala onartu zuten EBko estatuburu eta gobernuburuak 2007ko martxoan egindako Europako Kontseiluan: EBk konpromisoa hartu zuen *Europa energia eraginkortasun handia duen eta negutegi efektuko gas gutxi igortzen duen ekonomia bihurtzeko*, eta erabaki zuen, 2020rako negutegi efektuko gasen igorpena % 20 murrizteaz gain eta 2020rako lortu asmo diren balioen aldean energia kontsumoa % 20 aurrezteaz gain, 2020an energia berriztagarrien % 20ko helburu kuantitatiboa lortzea EBko energiaren guztizko kontsumoan. Horren barruan, estatu kide guztiek lortu beharreko helburua sartzeko da, hau da, 2020an EBn kontsumitutako garraio erregai guztien artetik % 10 gutxienez bioerregaiak izatea lortu behar dute.

Erabaki horrek EBk energia berriztagarriekin epe luzera duen konpromisoa berresten du, eta energia berriztagarrietan, bere aplikazio guztietan (bai elektrizitatean, bai berokuntzan eta hozketan, eta bai garraioan), asmo handiko parte-hartze bat lortzeko betebeharra ezartzen du. Oraingoan, gainera, denek bete beharreko konpromisoa da, eta horrek epe luzera egonkortasuna ekarriko dio sektoreari, eta segurtasuna inbertsiogileei; hori horrela, energia berriztagarrien iturrietatik energia sortzen duten teknologiak etengabe garatzea sustatuko da. Konpromiso politiko hori legezko bermeekin hornitu da *iturri berriztagarrietatik datozen energiaren erabilera sustatzeari buruzko 2009/28/EE Zuzentarauarekin*. Aurtengo apirilean onartu da zuzentarau hori, *Klima-Energia* lege sortaren barruan, eta, energia berriztagarriak sustatu eta erabiltzeko lege esparru berri bat ezartzeaz gain, tresna juridiko bat ematen du 2020an EBn energia berriztagarrien % 20ko kuota orokorra lortzeko estatu kide guztiak beharrezko neurriak hartzera behartzen dituen; gainera, helburu orokor hori estatu kide bakoitzarentzako nahitaezko helburu bihurtzen du. Espainiari dagokionez, % 20ko helburua ezarri zaio, eta 2010eko uztailan, estatu kide guztiek bezalaxe, helburu hori lortzeko estatuan zer ekintza plan taxutuko duen adierazi beharko dio Europako Batzordeari; banaka zehaztu beharko du, gainera, zenbateko portzentajea lortu asmo duen elektrizitatean, berokuntzan eta hozketan, eta garraioan. Euskal administrazioak, 80ko urteetatik, energia berriztagarriak sustatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta indarreko Euskadiko Energia Estrategikoak 2000-2010 aldirako duen helburua da guztizko energia kontsumotik % 12ko parte-hartzea lortzea (nahiz eta 2007an soilik % 5,1 lortu zen). Horretarako, Europako energia politikak emandako bultzadaren ondorioz ezarri diren koordenatuetara bideratu beharko du bere politika eta energia estrategia berria, prozesu horretan dagokion ekarpena egiteko modua izan dezan. Horregatik guztiagatik piztu da Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean **EAEn energia berriztagarrien garapenari heltzeko** interesa, hala energia berriztagarriak bultzatzeko Europako energia politikaren arloan eman dituen aginduak betetzeko eta agindu horiek ingurumen iraunkorra lortzeko dakartzaten abantailak aprobetxatzeko, nola ekonomia garatzeko eta lana sortzeko. Horretarako, **AZTERLAN BAT EGIN** nahi du, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak honako hau jakiteko modua izan dezan: zer potentzialtasun duen EAEk energia berriztagarriak garatzeko, zein diren energia horiek sustatzeko egokitzat jotzen diren helburu kuantitatibo eta kualitatiboak, eta zer neurrik ahalbidetuko duten prozesu hori.

Ikuspegi horretatik, azterlanak honako alderdi hauek jorratu beharko ditu:

EAEn zer energia berriztagarri dauden energia berriztagarriak eta teknologia aplikagarriak sortzeko. zer potentzialtasun izango duten 2020ari begira eta aldi luzeagoi begira (2050). gaur egun zer faktore dauden indarrean politika, administrazio, lege, ekonomia, zerga, gizarte eta ingurumen aldetik, energia berriztagarrien tipologia bakoitza garatzea oztopatu edo lagunduko dutenak, eta zer neurri hartu beharko diren energia berriztagarriak garatzeko esparru egoki bat ezartzeko.

2009/28 Zuzentaratuak aplikazioek hala elektrizitatea nola berokuntza eta hozketa nahiz garraioa hartzen badituzte ere, azterlanak ez ditu jasoko bioerregaiak ekoizteko energia iturriak, eta soil-soilik elektrizitatea eta berokuntza jorratuko ditu.

15.2. Azterlanaren edukia eta faseak

Lana ondo bereizitako lau fase edo bloke handitan egituratuko da, eta gutxienezko eduki gisa, ondoko kapitulu hauek izango ditu:

Lehenengo fasean, energia berriztagarrien iturriak zer diren, EAEn zein probetxa litezkeen eta lortzeko zer teknologia dauden adieraziko da, eta datozen urteetan zer garapen izan dezaketen ere adieraziko da. EAEn zer energia baliabide berriztagarri eta energia bihurtetarako zer modalitate teknologiko dauden jakitea da azken helburua, EAEn halakoak ustiatzea teknikoki bideragarria den edo ez erabakitzeko. Fase edo bloke honetan, azterlanaren 1. eta 2. kapituluak egingo dira. Sarrera orokorra.

- Azterlanaren definizioa eta plangintza orokorra. Metodologia.

- Azterlanaren gaia testuinguruan jartzea.

EAEko energia berriztagarrien iturriak:

Energia berriztagarrien iturrien eta halako energiak sortzeko behar diren baliabide berriztagarrien berri ematea.

Energia berriztagarriak modalitate guztietan sortzeko egokiak diren EAEko baliabide berriztagarriak identifikatzea. Energia berriztagarrien modalitate bakoitzean baliabide berriztagarri bakoitza ustiatzeko zer teknologia dauden azaltzea eta 2020ra eta 2050era bitartean (hemendik 8 eta 35 urtetara) teknologia horiek zer eboluzio izan dezaketen adieraztea, bereziki EAEn aplikatu daitezkeenak nabarmenduta.

Bigarren fasean, EAEn aprobeitza daitezkeen energia berriztagarriaren iturri bakoitzak energia sortzeko duen ahalmena kuantifikatuko da, hala 2020ra begira nola 2050era begira. Horrez gain, EAEk energia berriztagarrien bidez bere energia beharrei erantzuteko ahalmena kuantifikatuko da. Fase honetan, 3. eta 4. kapituluak egingo dira.

1. EAEk energia berriztagarriak sortzeko duen ahalmena, guztira eta iturri bakoitzeko, dauden datu bilketaren arabera kalkulatu; batez ere, EAEko energia berriztagarrien mapak, energia berriztagarrien iturri bakoitzerako eginak, eta 8 urtean eta, areago, 35 urtean energia berriztagarrien modalitate bakoitzean aurreikusten den eboluzio teknologiarekin bat datorren eraginkortasun teknologikoaren arabera eguneratuak.
2. Energia berriztagarriek 2020an eta 2050ean EAEko energia kontsumo guztiari erantzuteko izango duten ahalmena kalkulatzea. 2020an guztira zenbat energia kontsumituko den kalkulatzeko zaila denez gero, kontsumoaren hainbat bariantza hipotesi erabiliko dira.

Hirugarren fasean, EAEko energia berriztagarrien garapenean eragina duten teknologiak ez bestelako faktoreak aztertuko dira, ez bakarrik garapen horretarako onak zein diren atzemateko, baizik eta, batez ere, prozesu hau zein faktorek geldiarazten duten jakiteko, hori konpontzeko asmoz. Fase honetan, 5. eta 6. kapituluak egingo dira. EAEn aprobeitza daitezkeen energia berriztagarrien modalitate bakoitzaren inguruko lege, ekonomia, finantza eta ingurumen esparrua egokia den eta gizartean onartzeko modukoa den azaltzea eta baloratzea. Energia berriztagarriak garatzeko oztopo diren alderdiak identifikatzea eta horiek konpontzeko neurriak proposatzea.

Laugarren fasean, aurreko kapitulu guztietako azken dokumentua entregatuko da, osatua eta berrikusia, eta amaieran atal bat erantsiko zaio, ondorioak azaltzeko. Ondorioak eta azken gomendioak.

Azterlanaren aurkibidea irekiztat jo behar da; izan ere, aholkulari taldeak eztabaidatzeko modua izango du, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ontzat eman ondoren, bere eskaintzan azaldu dituen edo lortutako informazioaren analitika sortu diren atal berriak gehitu ahalko ditu, azterlana garatu ahala horien gainean eztabaidatzen den neurrian.

15.3 Metodologia kontuak

Lehenengoa. Lana praktikoa da, eta ez teorizatzailea. Beraz, txosten argi eta sintetiko bat lortu nahi da, proposatzen diren helburuei zehatz helduko diena.

Bigarrena.- Energia berriztagarrien kuantifikazioari dagozkion datuak erakundeek egin dituzten baliabide berriztagarrien mapak ematea espero da. Hori posible ez bada, beharrezkoa izango da arloaren gaineko beste azterlan batzuk bilatzea eta horietan egin beharreko eguneratzeak edo doikuntzak egitea.

Hirugarrena.- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardean adituak eta azterlanaren gaian zuzenean inplikaturik daudenak entzuteko saioak antolatzeko asmoa dago. Saio horietan, adituek beren ezagutzak eta esperientzia azalduko dituzte, eta modu horretara azterlana aberastu ahal izango da, bereziki 5. kapituluan sartuta dauden kontuei dagokienez.

15.4 Lanak zuzentzea eta gainbegiratzea

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardeak zuzendu eta gainbegiratuko ditu lanak, horretarako izendatuko duen pertsona baten bidez. Horretarako bilerak egingo dira, ardurdaunak erabakitako lekuan eta egunean, gutxienez 45 egunean behin.

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartuko du azterlana lanen zuzendaritzak ematen dituen jarraibideen eta aginduen arabera egiteko, bai eta gainbegiratzea errazteko ere, horretarako eskatzen zaion dokumentazio guztia emanda eta lana egitean sortzen diren gorabehera guztien berri emanda.

Halaber, lanaren enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du entrega bakoitzaren aurkezpena Lan Batzardean egiteko, baldin eta batzarde horrek egoki irizten badiu, berak baitu arlo horren eskumena Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardean. Halaber, konpromisoa hartzen du lan guztia bukatutakoan batzarde horretan edo batzardeko beste organo batean lan horren aurkezpena egiteko.

15.5 Zerbitzua emateko formatua

Dokumentuak formatu digitalean entregatuko dira, eta inprimatutako dokumentuetan Word formatua erabiliko da.

I. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

_____jn./and.-ak jakinarazpenetarako
helbidea _____ (e)(a)n duenak eta
_____ NAN zenbakiaren jabea denak eta ahalmen juridiko osoa
eta jarduteko ahalmena izanik, bere izenean edo _____ ren izenean, hauxe
egitea hitzartzen du (bere izenean edo enpresa horren izenean): **EAE-n Energia Berriztagarriak
garatzeko moduari buruzko azterlana** esleitzeko eskatzen diren baldintzen eta betekizunen
berri jaso ondoren, kontratuaren xedeko lanak egitea esleipenduna gertatuz gero, eta zorrozki
lotuko natzaie indarreko araudiari eta aplikatu beharreko Administrazio-klausulen eta Preskripzio
Teknikoen Baldintzen Agiriari. Guztira _____ euro dira
(letraz), _____ (zenbakiz), ondoren agertzen den xehetasunarekin eta
banakapenarekin.

BEZa dela-eta aplikatu beharreko zerga-tasa _____ (%)

Zerga-oinarria _____ euro

BEZa _____ euro

ESKAINZAREN GUZTIZKO ZENBATEKOA _____ euro

Bilbon, 2009ko _____ren ____ (e)(a)n

Sin.: _____